

**XVIII. GOGOETA ASTEA OHARRIZEN  
EUSKARA HUTSEAN**

***FEDEA, SINISGARRIA ETA BIZIGARRIA DA***

Maiz aldarrikatzen dugu euskarak, bizirik irautekotan, ezinbestekoa duela gure gizarteko alor guztietan lekua izatea. Ez da nahikoa alor batean edo bestean leku zabala izatea. Horrek bai, lagunduko du, baina gure bizitza osoa euskaraz egin ezik hankamotz eta kolokan izango gara.

Zer esanik ez erlijio alorrak ere badu gaurko gizartean, oraindik ere, leku zabala eta hainbat jenderen bizitza eta bizi-penak ukitzen ditu. Erlijioaren eragina, gainera, gure barne bizitzan gertatzen denez, hainbatean garrantzi handiagoa du bizitza hori elikatzen duten gaiak euskaraz jasotzeak.

Aurtengo uda honetan, egin-eginean ere irailaren lehen astean, orain dela 17 urte hasi eta gogoeta-astea urtero euskaraz antolatu izan duten taldearekin astebete igarotzeko aukera izan dut. Egia esan, lehenago ere, inoiz parte hartu nuen, baina ez azken urte hauetan. Txunditurik geratu nintzen bertan hain gai ezberdinak eta hain otoitzaldi gozoak euskara hutsean bizi izaterakoan. Gure euskara egoera larrian aurkitzen bada ere, badugu, oraindik aurrera egiteko itxaropenik, hor-hemenka horrelako jardunak antolatzen diren adinean.

Nafarroako Oharriz herrixka zoragarrian, Euskal Herriko apaiz, erlijioso eta sekularrentzat antolatutako jardunaldi horiek bete-beteak izan genituen bai aztertu ziren gaiei zegokie-

nean bai bertan bizi izan genuen anaitasunezko eta elkartasunezko bizitzari zegokienean.

Bertan ez genuen erabili erdararik, Euskal Herri osokotik (Hegoaldetik zein Iparraldetik) bildutako euskaldunon artean. Hori, astean zehar eztabaidatu eta sakondu genituen gai interesgarriak baino garrantzitsuagoa izan zen, nire irudiko; hain zuen ere testigantza bizia genuelako, goizetik gauera harreman guztiak euskara hutsean garatu baitziren. Inguru euskaldun batean, euskaraz bizitako jardunaldiak.

Gogoeta aste horretan gogora ekarri, aztertzeke esku artean erabili, eta bizi izandakoak laburbilduz hiru atal nagusi nabarmenduko nituzke: gogoetazko otoitzaldiak edo ospakizunak, hitzaldiak eta lekukotasunak. Hirurak oso egokiro antolatuta eta egunean zeharkako uneak egokiro banatuta.

### **1.- Otoitzaldiak edo ospakizunak:**

Gogoeta asteak izan duen alderdirik ederrenetarikoak bertan bizi izan genituen ospakizunak eta otoitzaldiak izan ziren. Gogoeta sakonak egiteko une ezin egokiagoak. Honetan benetan lan txalogarria egin zuen arduradun izan genuen Karlos Agirre jaunak. Txukun eta zehatz prestatu zituen bai salmoak, bai kantuak, bai tartekako otoitz eta isuluneak.

Batez ere goizeroko *Gorespenak* otoitzaldia eta arratsalde-  
roko eukaristia-otoitzaldia eguneko unerik ederrenetarikoak izan genituen, oso egokiro hautatuak eta prestatuak izan baitziren bertan erabili genituen otoitzak eta irakurgaiak. Inolako presarik gabe, fedezko maitasun gorian eta itxaropen bizian elkaturiko familiari bor-bor bihotz erditik ateratzen zitzaizkion otoitzaldiak izan genituen. Tartekako isiltasunak ere ozenki mintzatzen ziren gure barne-muinetan.

Eguerdikoa otoitzaldia, laburragoa izaten zela, gure aurretikoek edonon eta edozetan ari zirelarik eliz dorreko erlojuak

hamabiak jotzerakoan egin ohi zuten bezala, gure frontoietan oraintsu arte egin izan den bezala, Andra Maria gogora ekarriz bukatzen genuen. Eta guzti hori antzinako hainbat kantu zahar gogora ekarriz: *Agur, izar eder, Birjina maitea! / Agur, Ama gozo, zeruko atea! / Zuri aingeruak berri on emanik, / etorri zaitzaigun bakea zerutik.*

Edota hurrengo kantu bezalakoak abestuz.

*Egilearen alana  
ama zaitu Egileak;  
zure sabela izan du  
sorleku Jainko-Semeak  
Espiritu Santuaren  
egitez sortu zenduan;  
geroztik dago gurekin  
Jainko-Semea munduan  
Zaitzagun mundu beltzean  
gure begientzat izar;  
zaitzagun mundu gaiztoan  
gure bihotzentzat indar.*

Esan bezala, gogoeta-bide eta atsedeen-iturri bilakatu zitzaizkigun otoitzaldi hauek, egin-eginean ere egunean zehar gure espirituak asetasunera zeramatzen unerik ederrenak. Irakurgaiak, otoitzak, kantuak, olerkiak, isiluneak... elkarri eskuak estu loturik dantza zoragarri batean! Jarri ere nori diote dar-dar jartzen bihotza honako olerki hauek bezalakoek?

*Zure minak nire min  
nire minak zure min,  
banabil ni Zurekin.*

Nork ez du bizian  
zerbait sofritu, zerbait jasan?  
Nolako bakean  
minez min nabilan,  
elkarren minetan?

*Zure minak nire min  
nire minak zure min,  
banabil ni Zurekin.*

*Zure minak nire min  
nire minak zure min,  
banabil ni Zurekin.*

Bai bihotz, bai gogo,  
niregan nago,  
nirekin dena min  
Jainkoa baitago,  
mina dut gaitzago.

Gaitzago dut mina,  
gozoa gaitzena;  
jasaten, gaintitzen,  
garaitzen duena:  
ni baitan, Zu, Jauna .  
(Iratzeder)

\*\*\*

*Bihotzean nork ez du  
zenbait etsimendu!*

Amesetan zeukana  
Nork ez du galdu?  
Ez da inoiz mundua  
Nahi dugun mundu.

*Bihotzean nork ez du  
zenbait etsimendu!*

*Bihotzean nork ez du  
zenbait etsimendu!*

Etsimendu gaintetik  
dator esperantza;  
garaituz da baketzen  
gizonen bihotza.

Gaua gabe ez baita  
izarrik ageri,  
etsituak, saltoka, kanta  
gauaz argiari. (Iratzeder)

\*\*\*

Otoitzak ere, esan bezala, esanguraz bete-beteak izan genituen. Hona hemen eder bat:

Mahai baten inguruan, / eskuak eta bihotzak loturik, / fedekak elkarrengana bildurik

Hitza eta Ogia banatzen dugu / gure fede honen hazkarri  
Hitzaren eta Ogiaren irudipean / Kristo dugularik oinarri

Mahai baten inguruan, / pozak eta minak bizirik, / fedeak  
elkarrengana bildurik

**Arnasa** guregana nahi dugu, / gure bideetan lagungarri,  
**Arnasak** gu bizituriko / elkarbizitza diezagun eraiki.

Mahai baten inguruan, / gizon-emakumeak elkaturik, / fe-  
deak elkarrengana bildurik

**kezka** bizi nahi dugu / gure bizien ezaugarri,  
**kezka** baita egiaz, / gure urratsen indargarri.

Mahai baten inguruan, / herriaren bihotza sentiturik, / fede-  
ak elkarrengana bildurik

**fede** mina dugu biziki / gure ahaleginen gidari,  
**fede** mina herri giroan / helburuetan aitzindari.

Mahai baten inguruan:/Hitza eta Ogia, gure jakia,  
pozak eta minak, gure ahaleginak, gure fede minak  
herriarentzat herri minez, pozez eta nekez...  
hor gabiltza herriaren bihotzean,  
mahai baten inguruan. (I. Bereziartua)

Otoitz horiek, bestalde ez ziren inguratzen gaituen mundu  
aldakor eta globalizatutik ihes egiteko atxakia, konpromisora-  
ko dei ozena baizik. Halakoa dugu Helder Camara gizon kon-  
prometituaren otoitz hau:

Zatoz, Jauna,  
ez egin irrifar, gure artean zaudela esanez!  
Ezagutzen ez zaituztenak milioika dira!  
Eta zer balio du ZU ezagutzeak?  
Zertarako balio du  
Zu gure artera etortzeak,  
gure bizitza berdin baldin badao?  
Alda gaitzazu,  
berri gaitzazu.

Zure mezua gure haragi egin dadin,  
 gure odolaren odol egin dadin,  
 gure bizi-arrazoin izan dadin.  
*Kontzientzia baketsuaz* bizitzetik  
 atera gaitzazu!  
 Zure mezua izan bedi guretzat  
 eskakizun bizikoa..., ezerosoa...,  
 horrela bakarrik ekarriko baitugu  
 bake sakona  
                   bestelako bakea,  
 zure bakea.                   (Helder Cámara)

## 2.- Hitzaldiak

Egunero, goiz eta arratsaldez izan genituen, jarraian hausnarketarako nahiz elkarrizketa bizian gaiak sakontzeko nahiko aukera izanik. Ezin hemen han esandako guztiak bildu, gutxiagorik ere, oso programa betea izan genuen-eta. Kristauok fede ikuspegiz munduari begirada sakon bat egiteko antolatutak izan zirenez, ildo horretatik bideratu ziren. Gaiak, bestalde, oso gaurkoak eta nahiko egokiro aztertutak.

Astelehenean, gogoeta-asteari hasiera emanaz, Xabier Galardi teologo sekularra mintzatu zitzaigun “*Egia jakin*” ala “*egia bizi?*” galdera aurrez aurre jarritz eta ezaguera teorikotik bizitzako praxira dagoen alde aditzera emanaz. Berari entzutenak laburbilduz, Jainkoa “Alfa” eta “Omega” dugula esaterakotan, honako hauek gogoan izan behar omen ditugu: Alfa (hasiera) gizaki guztiok bere irudiko eginak izan garelako dugula; eta Omega (amaiera) gizaki guztioi dagokigulako bizitzaren osotasuna Jainkoaren erreinuan.

Arratsaldean “*Kulturaren arteko elkarbizitza: gaziak eta gozoak*” gaia jorratu zuen. Hau ere oso gai interesgarria, pertsonak bere nortasuna gauzatzeko bide izan eta pertsonaren izateari atxikiak direnez, kulturak gure bizitza osoa barru hartzen

duelako. Sarritan, alabaina, oso zaila gertatzen zaigula kultura ezberdinen arteko harremanak bideratzea dakusagu. Ondorioz gure helburu nagusia *“izatea era ezberdinez garatzen denez, batasuna ezberdintasunean eta ezberdintasunak batasunean”* onartzen saiatzea dela nabarmendu zuen.

Asteartean, Jaxinto Albizu, abokatu irakaslea mintzatu zitzaigun. Goizean hain aipatua eta jorratua dugun “globalizazio” dontsua egokiro ulertzeko nondik norakoak eskaini zizkigun, lehen eta behin, hasiera batean teknika alorreko aurrera pausutzat jo zenak gaur egun gizarte osoa bere hatzaparretan hartu duela gogora ekarriz. Hain zuen ere, munduan zeharkako komunikabide fisiko eta birtualetan gertatu den iraultzak goitik behera aldatu digula mundua.

Iraultza horren ondorio nagusienak: teknologia berriak sortzea, lehen latinak zuen lekua ingelesak hartzea, estatu mailako hesi edo muga legal eta politikoak erortzea, erabaki gune nagusiak non dauden ez jakitea eta abar luzea izan omen dira.

Globalizazioak eta gizartera ekarri duen garraio merkatze izugarriak, bestalde, eragin oso txikia izan omen du herrialde txiroetan. Ez da ikusten, merkatuan kostuak merkatzeak eragin onik ekarri dietenik herri atzeratuei. Ez die inolako irtenbiderik eskaintzen. Ondorioz, handitzen ari da halako herrietako pobrezia.

Hori dela eta, gogora ekarri zizkigun kapitalismoak aurrera egiteko dituen ardatz nagusi biak -etekinak handitzea eta gas-tuak mugatzea- azken muturretaraino daramatzala aurrera. Horrek, baliabideak ugaritzea ekarri duen arren, hainbatean ugaritu duela munduan zeharkako pobrezia ere ohartaraziz, ondasunen pilaketa izugarria gutxi batzuen eskutan jarri baitu. Ondorioz, 1974tik hona bikoiztu egin direla txiroak; hau da, zenbakitan esanda, 3.000 milioi pertsonak ez dutela eguneko 3 dolar baino eskuratzen, eta, horien artean, 1.500 milioi pertsonak, gainera, dolar bana ez dutela eguneko.

Era berean, guzti horrek gizartean sortu duen ondoriorik txarrena zatiketa berri bat ekartzea izan dela ere gogoratu zigun. Hain zuzen ere, teknologia menperatzen dutenen -soldata handikoak eta gizarteak beharrezkotzat jotzen dituenak- eta teknologia menperatzen ez dutenen -beharrezkoak izan ez eta egokitzen jotzen den unean baztertzekoak- arteko bereizketa gorria. Horren ondorioak izango dira, besteak beste, langabeziaren ugaritze izugarria, etorkinak uholdeka etortzea, legez kanpoko sareak ugaritzea, eta abar luzea.

Kultura alorrean ere aldaketa sakona gertatzen ari zaigula nabarmendu zuen. Lehen, justizia, berdintasuna, gizarte berria, solidaritatea eta giza eskubideak goi mailako onarpena zuten gizartean. Orain norberekeria, itxurakeria, balore-pentsamendu ahulak, kontsumismoa nagusitu dira zeharo. Gertatu den homogenizatzearen ondorioz herrialde boteretsuen kultura ari da indartzen eta jabetzen. Azken batean, iraultza horrek herrieta-ko demokraziaren ahultzea ere ekarri du erabakiak ez baitira lurralde bakoitzean hartzen. Horren ondorioz gutxi batzuk beren gogoetara antolatutako bizimodu batean murgildurik bizi omen gara.

Arratsaldean, globalizazioari buruz esandakoak bidelagun zirela gaurko munduaren egoera larria aurkeztu ondoren, "*Ebanjelizazioa eta errealtatearekiko konpromisoa*" izan genuen aztergai. Honetan, argi ikusi genuen, besteak beste, kristauok elkertasunean eta lankidetzan jokatu behar dugula humanismo hutsez gizakiaren izaera eta egoerak hobetzen diharduten guztiekin bat eginda. Eta hori, Ebanjeliotik bertatik datorkigun exijentzia dugulako. Agertu ere, Jesusek azkeneraino agertu zien bere elkertasuna baztertu eta txiroei, gizartea berriztatzeagatik bere bizia eskaintzeraino, bere jarraitzaileoi bide horretatik jardutera dei eginez.

Asteazkenean, beste gai garrantzitsu bat sakontzen lagundu zigun Juan Jose Etxeberria Sagastume Deustuko unibertsitateko irakasleak. Egun horretan bi gai izan genituen aztergai; goi-



zez, *“Moralak bultzatuta ala Ebanjelioak erakarrita”*, eta arratsaldez, *“Etsipenerako arrazoia ala erantzukizunez jokatzeko deia”*. Biak gaur eguneko sinestedunek gogoan hartu eta hausnartzekoak, jakina.

Erljio gehienek, Jainkoarekiko harremanak bideratzeko eginkizun erlijioso multzo bat -kultua- eta taldekideei bizitzako bideak eta betebeharrak ezartzeko zenbait betebeharrak -aginduak- izan ohi dituztela azaldu zigun, gaur egun moralak edo etika deritzaguna, batzuk “bizitzako norabide modura”, eta beste batzuk “eginbeharrak edo aginduak betetze modura” hartzen dugula ere gogora ekarriz.

Etika edo moralari dagokienean, erlijioen artean, bestalde, hurrengo tipologi hauek ageri zaizkugula: a) Unibertsoaren oinarrizko printzipioetan jartzen dutenak; b) Jainkoaren aginduei menpetasuna izateari lehentasuna ematen dietenak (Islama, judaismoa,...); c) Absolutuarekin identifikatzeko mistikazko orientazio modura hartzen dutenak (Nirbana,...) edota d) Kristautasunarena, agindu edo betebeharrak batzuk baditu ere, moralak Jesusekin topo egin eta Jainkoaren maitasunaren ondorio gisa bizitzeko era modura hartzen duena. Hala ere, jokabideen iturriak edota helburuak ezberdinak izan arren, praktikan berdintasun handiak ageri zaizkigula era bateko edo besteko erlijioari lekua egiten dietenen artean.

Guzti hori horrela izanik ere, gaur egungo sekularizazioak eten egin omen du erlijioaren eta moralaren arteko lotura. Ondorioz giza etikak eta erlijioek bakoitzak bere ibilbidea hartzerakoan, tirabirak sortzen ari dira gure gizartean. Erljioetan “ona” deritzona ez da, inolaz ere, gizartearen arauen betebeharrak hutsa izango. Erljioek beste dimentsio bat emango diote gizakiaren portaerari.

Erljioek, beraz, ez dute eginbehar konkretu bat eskatzen, jarrera eta bizitzeko era bat baino. Hori horrela, sinesgabeentzat etika alorreko huts egiteak bizitzako porrotak diren bitartean sinestedunarentzat pekatuak izango dira, salbamenera

hurbiltzeko bidean eginiko hutsak liratekeelako. Edonola ere, jarrera erlijiosoak etikara eraman behar gaituela, eraginkorra izatekotan, sinestedunak, era berean, nahitaez pertsona erlijio-soa eta etikoa izan beharko duelako.

Horrela, bada, kristauontzat Kristo Jainkoaren azken errebelazioa denez, Berarengan sinesteak pertsonarengan bizitza aldaketa osoa eskatzen du. Hain zuzen ere, Ebanjelioarekin topo egiterakoan, Jainkoa pertsonaren bizitzaren erdi-erdian jartzen da, Berarengan itxaropena izateak konfiantza izatera eta konpromiso hartzera eraman behar gaituela. Hala ere, kristauak ez du Jainkoarengan bakarrik sinesten, Jesukristorengan agertutako Jainkoagan baino. Hori dela eta, Jainkoarengan sinesteak Jesusen jarrerak bere egitera bultzatuko du kristaua. Sinesmen horrek, batez ere maitasuna eta adiskidetasuna bizitzea eskatuko dio.

Maitasun hori, baina, ez dugu arau multzo hutsa, bizitzako motorea eta ebanjelioaren gunea baino. Kristau maitasun horren ezaugarriak, bestalde, unibertsaltasuna -etsaiak maitatzerainokoa-, erradikaltasuna -berak maitatu gaituen bezala- eta behartsuen aldeko apostua -berak maite izan zituen bezala- jokatzea izango dira.

Kristautasunaren beste ezaugarrietariko bat, esan bezala, adiskidetasuna edo errekontziliazioa dugu, Jesusengan sinesteak barkamenean konfiantza izatera eraman beharko gaituelako, Jesusek maitasunez hartzen baitzituen pekatariak.

Horiek horrela, pertsona nahiz gizarte mailako harremanen eremuan bizi behar delako Ebanjelioa ez dugu etika hutsa. Ebanjelioak, bada, kultua (fedea egintzetan agertu nahi izatea), otoitza (Jainkoarekin elkar harremanak izatea), eta ospakizuna (taldekideekin horretarako denbora erabiltzea) eskatzen dizkigu.

Ondorioz, "erlijioa ez dugula Jainkoari buruz hitz egitea, Jainkoarekin hitz egitea baino" esan dezakegu. Gizarte sekular-tu honetan, herri aurreratuei begiratuetsipenerako zenbait arrazoi baldin baditugu ere, badugula, era berean, sinesmena

galtzen ari den gizarte horretan espirituaren presentziaren egarri bizi bat ere gogoratu zigun. Bazterretan sortu den hutsunetak ekarriko omen du, seguruenik, argirik eta bide berririk.

Ostegun-Ostiralean, Anjel M<sup>a</sup> Unzueta, Bizkaiko Elizbarrutiko apaiz teologoa izan genuen gidari. Gaiak, berriz, kristautasunari zuzenkiago lotuak. Ostegunean, *Kristau eta eliztar gaur eta hemen: erronkak eta eginbideak*. Kredo abiapuntutzat hartuz era didaktikoan aurkeztu zizkigun zertan dugun kristau izatea, hain zuzen munduaren aurrean ditugun erronka eta eginbideei aurre egiterakoan. Hots, zer suposatzen duen Jainkoa, Aita/Ama izateak; Jesukristo, gure gorputz-hezur egindako Jainkoaren aurpegia izateak, Espiritu Santu bizi-emallea gurekin izateak, kristau elkarte dugun Elizan bizi izateak, pekatuaren barkamena itxarroteak, eta hildakoen biztuera eta betiko bizitza sinesteak ematen duen bizitzaren ikuspegi bereziari buruz mintzatu zitzaigun.

Ostiralean, berriz, *Fede-bizikizunak bizi eta iragartzeko zailtasunak eta aukerak* gogora ekarri eta aztertzeari ekin zion. Horrela, munduaren egoera (globalizazioa) eta jokamoldeak (moral/etika), eta kristau izatearen muina (erronkak eta eginbideak) aztertu ondoren, gure jarrera eta egintzen nondik norakoak bilatzera jotzeko bideak argitzen saiatu zen.

Egia esan, hitzaldien ostean eztabaida oso biziak izan genituen, une honetan gure Euskal Herriko gizartean gertatzen ari diren zenbait arazoei buruz. “Indarkeria”, “askatasunaren murrizketak”, “gure herriaren eskubideen ukatzea” eta abarrek hainbat esames eta iritzi-azterketa egiteko bide eskaini zigun, kristau konpromisoa aurrez aurre jartzerakoan, berez-berez azaleratzen direlako gai horiek. Otoitzaldian erabilitako testu honetan laburbiltzen zaigu kristau izatearen muin hori:

**Jesus** sinesten dugu, / gizon aske eta solidarioa,  
gizakiaren eta historia osoaren / bidea eta helburua.  
Lurreko azkenengoen alde, eta hauen bidez,  
gizon eta emakume guztien alde hartu zuen konpromisoagatik,

botere zibil eta erlijiosoek /gurutzean indarkeriaz hila.  
 Fede eta justiziaren profeta; Bera,heriotzatik berpiztua,  
 Gizadiaren Aurrelari bihurtu zen,  
 Jainkoaren aintzarako / eta mundu osoaren salbamenerako.  
**Jesusen Jaungoikoa** sinesten dugu,  
 Haren Aita eta geure Aita,  
 ondasun guztien iturri, / eta kreaioa gure eskuetan jarri duena,  
 Berarekin denen onerako egin dezagun.  
 Bere erreinuari hasiera emateko / bere Seme Jesus bidali digu  
 jainko eta jauntxo gehiagorik egon ez dadin,  
 eta denok, aske eta solidario, / senide izan gaitezen.  
**Espiritu santua** sinesten dugu,  
 Jesus betetzen zuen zuzentasun eta maitasun Espiritua,  
 bere lana jarraituz / banaketa eta bereizkeriarik gabeko mundu berria  
 eraiki dezagun, / gure artera isuria.  
 Jesusen Elkartea den **Eliza** sinesten dugu,  
 era berean santu eta bekataria, / mundu guztira Berri Ona zabaltzera  
 eta elkartasunaren eta maitasunaren ezaugarri izatera bidalia.  
**Gizaki** bakoitzarengan neurrigabeko **etorkizuna** dagoela hots  
 egiten dugu,  
 oinaze eta injustiziaren gainerik, / gaitza gainditua izan delako  
 eta heriotza ere Jesusek garaitu duelako. Amen.

### 3.- Lekukotasunak:

Astean zehar izan genituen zerik garrantzitsuenen artean hainbat lekuko sekularrek beren bizitzari buruz eskainitako berrien lekukotzat nabarmenduko nituzke. Zenbait pertsonari, beraien fede-bizitzan egindako ibilbideen berri entzutea oso aberasgarri izan zela uste dut. Hurrengo hauen lekukotasunak jasotzeko aukera izan genuen:

**1.-Isabel Pagola**, laiko misiolaria. Fabrika batean 24 urte egin ondoren, Brasilerara misiolari lanetara joatea erabaki zuen. Ingurukoek zorotzat jo zuten, jakina. Egia esan, lan-segurtasun-

na hain balio handikotzat dugun gizarte honetan zorakeria zirudien hartu zuen erabakiak.

Hasiara batean hiru urtetarako lan-baimena lortu zuen. Baina, hara joan zenean, lehen urte osoa bertako egoeraren berri jakiten eta bertako hizkuntza (portugeses) ikasten egin ondoren egotaldia sei urtetara luzatzea erabaki zuen.

6.000 biztanle inguruko herri bateko beharrizan guztiak aztertu zituzten eta alor ezberdinetako jardunei ekin. Herriko alkateak eta jendeak onarpen oso zabala eskaini omen zieten, eta irakaskuntza nahiz gizarte laguntza alorrean plangintza zabala abiabidean jartzea lortu, Ipar Ameriketatik etorritako bi medikuren eta gobernutik lortutako irakasle batzuen laguntzarekin.

Bere kristau bizitzan iraultza bat izan omen zen. Halako miseria eta premia larriak zituen gizarte eta gurea konparatzeak krisialdi gorria sortu omen zion barnean. Dena den, Brasileko pertsonak duintasuna omen dute eta beren kabuz aurrera egiteko gogo bizia ere bai. Sei urte egin ondoren, Euskal Herrirantz etorri zen. Hemen, beste hiru urtetan zehar antzerako zerbait egiteko aukera eskaini zioten Kongo. Oraingo hau, oraindik ere herrialde pobrea zen. Portugesa jakiteak zabaldu omen zizkion harako bideak.

Bertan egindako ahaleginak handiak izan baziren ere, erdi ustelak gertatu omen ziren. Emakumeak ezere hurrengotzat jotzen dituen gizarte horretan oso zail egiten omen zaio emakume sekular bati lan egitea. Laguntza alorrean egin omen zuen lan eta ahalegin handiz martxan jarritako programari jarraipena ematan moja bi geratu omen ziren. Hango herritarrek, baina, ez omen dute Brasilekoen antzera arazoak euren kabuz konpontzen egiteko benetako gogorik. Ezer egin ezinaren gorrria dastatu omen zuen.

Une honetan Gipuzkoako karitasen plangintza bat burutzen ari da emakume baztertuei laguntzeko etxe berezi batean,

emakume horiei bizitzari nola aurre egin irakasten. Hasiera batean limosna eskatzen omen dute. Plangintzako helburua, baina, emakume horiei, bizitzari aurre egiten irakastea omen da; lan hau ere gogorra omen da.

Dena den, argi jarri zuen bera misiolari Usurbilgo parrokian, bertako behartsu, lanpetu eta abarri laguntzen eginiko lanetan bihurtu zela. Ez dagoela, nahitaez, misio lurretara joan beharrik kristaua misiolari izatera heltzeko.

**2. Peio Ospital**, Itsasuko euskal kantari ezaguna. Aste osoan izan genuen gure artean, hitzaldiak eta grabatzeaz gainera, arlo guztietan parte hartuz. Banku batean hogeitaka urte lanean jardun ondoren, eskaintza eta, beraz, aukera izan eta aurrerantzean Lapurdiko herri iratiaren ardura izango omen du bere esku. Guztiok ezagutzen dugu Pantxoarekin batera kantu alorrean eginiko lan zabala dela bide. Nork ez ditu gogoan beraien kantu eder eta sutsuak? Irratian ere antzerako arrakasta opa diogu.

Une honetan, bestalde, bi seme-alaben aita dugun kantari hau Iparraldean 30 bat pertsona sekularrek osotutako "fededunak" taldean ere badabil lanean. Berriak emateko aldizkaritxo bat era jarri dute bidean. Hurrengo baten berri zehatzak bidaliko dizkigula aldizkari honetara berba eman zidan. Bere bizitzako ibilbidea azaltzerakoan, nola ez, gu guztiok adurra dariola ginela, kantu eder batzuk ere eskaini zizkigun. Besteak beste, guztiontzat hain esanguratsua eta sakona dugun Manex Erdozaintzi Etxart frantziskotarraren olerki sakon hau irakurri zigun errepikak kantatuz:

SINESTEN DUT  
 Ikusten dituztan gauzak  
 sentitzen dituztan gauzak  
 Jastatzen dituztan gauzak...  
 ederrak, gozoak, onak direla  
 Sinesten dut.  
 Entzuten dituztan otsak

bereizten dituztan soinuak,  
abereen garrasiak, gizaki ororen mintzoak  
kantatzen diren abestiak  
biziaren mugimendu daldara izaki orotan...  
amiagarriak, atsegingarriak, pozgarriak direla  
Sinesten dut.

Biziaren mugimendu ots desberdina  
Izaki eta gizaki guzietan  
hunkigarria, zoragarria, lilluragarria dela  
Sinesten dut.

Loreak loratze betean  
fruituak fruitutze betean  
zuhaitz eta harri eta burdin  
lurraren lurtatze mugimendu daldaran  
mendiak eta itsasoak  
izaki eta gizaki guztiak  
izadiaren ekilibrio betean iraunen dutenean...  
Sinesten dut  
gizonaren zorientze betean.

Esperantzak  
gizon guzien  
izerdiaren izerdiaz  
burrukaren burrukaz  
mundu berri bat erdiko duenean...  
sinesten dut.  
gizonaren zuzentasun betean  
gizonaren askatasun betean  
gizonaren amodio betean  
loreen loratze betean  
fruituen fruitutze betean  
lurraren lurtatze mugimendu daldaran.  
izaki eta gizaki guztiak

irautearen betean dantzatuko direnean...  
 Sinesten dut  
 hastapeneko, gaurko eta betirako  
 Amodio haren Izenean  
 eta, berriz ere, deituko diot.  
 Biziaren Jaun Goikoa  
 hastapenetik betirakoa...  
 Sinisten dut.

### **Errepikak:**

- 1- Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak  
 Herri zapaldu honen intziri-nigarrak  
 Taigabe daramagun burruka gogorak  
 Dakartzki berarekin bizi emankorrak...
- 2- Nik ez dut bizi nahi besoak mozturik  
 Bi zangoak herrestan bizkarra hautsirik  
 Izar bati begira lagunak eginik  
 Esperantza kantatzen ez naiz asperturik.
- 3- Nola oihan mendiak berdin itsasoak  
 Musika xoragarriz diraden beteak  
 Lurtatze berri baten indarki bultzadak  
 Daldaratuko ditu zeruko izarrak!
- 4- Mespretxu zapalkuntza kalapita hauzi  
 Herri ukatu baten morroi nazka guzi  
 Datoz Askatasuna hodeiak doatzi  
 Ager gaiten dantzara bihar edo etzi!

**3.- Jose Anton Artze**, olerkariaren lekukotasuna. Oso interresgarria hau ere. Hainbatean, behar bada, gutxiago ezagutzen genuelako. Euskal Herrian hain ezaguna dugun olerkari honek bere bizitzan izan duen espirituzko bilakaera kontatu zigun izugarrizko pozez eta apaltasunez. Nola ibili izan den, hor-hemenka, barne-barnean egarri aseegin batek bultzaturik Jainko bila,



eta, arimako basamortu agorrean astialdi luzea igaro ondoren, nola ase izan dituen hainbatean bere barneko egarri bizi horiek.

Inguruko zenbaitek beragan gertatu den barne-aldaketa hori osorik ulertzen ez badute ere, bera pozez beterik eta bizitzari itxaropentsu aurre egiteko gogo biziz ikusi genuen Jexux, bere anaiaren heriotzak ere eragin handia egin diola aitortu zizgun. Olerkari izanik, tarteka-marteka, zenbait olerki esanguratsu irakurri zizkigun; beste batzuk, esaterako bere anaia Jexuxi omenaldi gisa eskainitakoak, guk geuk bakarrean irakurri eta gozatzeko eskaini zizkigun. Halako hainbat gure aldizkari honetako olerkian atalean dituzue. Jarraian gure aurrean irakurritako batzuk jaso nahi izan ditut:

*Patxi Uribarren Leturiaga*

**Maite** dugu.

**Maite** dugulako  
ikusi gabe dakusagu.

**Maite** dugulako agertzen zaigu  
argitzen gaitu;  
maitatuz ezagutzen,  
**ezagutu** gabe maite ez daitekeena,  
maitatu gabe ezagut ez dezakeguna.

“Ez dezala uste musu hori hartu duenik,  
egia ulertu, bai, baina hura maite ez duenak;  
edo hura maitatu arren, uletzen ez duenak”  
Bernardo Donea. “Cam” 143.